

Zer da garapena? (Lana taldeka eta analisisa talde guztiak bilduta)

Denbora: 45 minutu.

Gida

- Eskatu taldeka erantzun diezaietela honako galdera hauei:
 - Zein dira herrialde garatu baten ezaugarri nagusiak?
 - Zein dira garapenaren helburu nagusiak?
 - Gizakion zein premia ase behar ditu garapenak?
 - Zein dira estrategia nagusiak aurreko puntuetan jarritako helburuak lortu eta definitutako premiak asetzeko?
 - Aurreko erantzunak kontuan hartuta, zer da garapena?
- Talde bakoitzaren ondorioak aurkeztu. Horretarako, txartelak erabili eta galdera bakoitzerako adierazitako zutabeetan jarri.
- Adierazi zertan datozen bat taldeak eta zertan ez, eman dituzten erantzunei begiratuta. Proposatu zenbait txartel kentzea eta berriak jartzea, guztiak ados jarriko dituen garapenaren ikusmoldea lortu arte. Ezin bada adostasunik lortu, argi utzi zertan ez diren bat etorri parte hartzaileak.

Jatorria: GTZ (1995): *Herramientas para construir equidad entre mujeres y hombres. Manual de capacitación*. Santafé de Bogotá: GTZ.